

Ibilaldi animatua



Dinamika-mota: Sormena

Zer lantzen da: Sormena, deshinibizioa

Adina: Adin guztiak

Iraupena: 10 minutu

Partaide kopurua: Talde handia

Materiala:

Ez dago.

Azalpena:

Espazio mugatu batean nola ibili behar duten esango diegu taldekideei: talka egin gabe eta isilik.

Gidariak adieraziko die nola ibili behar duten denbora batez, izan daiteke 20-40 segundo inguruan:

- Zorte handia eduki duzu eta oso pozik zaude.
- Mendi tontorrera igotzen ari zara.
- Ura duzu gerritik behera.
- Gauetz kale ilun eta bakarti batean zabiltza.

- Erraldoiak zarete, oso altuak benetan.
- Hezur hauskorrek dituzue, kontu handiz ibili behar duzue.
- Adarretatik kulunkatzen ari zarete, tximinoen antzera.
- Ipotxak zarete, oso-oso txikitxoak.
- Gol bat sartu duzu futbol partida batean.
- Errekatxo bat gurutzatzen duzu, harriz harri.
- Olatu handien artean mugitzen den itsasontzi batean zoaz.
- Soinketan, orkatila bihurritu duzu.
- Norbaiten atzetik zoaz eta ez duzu nahi hark zu ikusterik.
- Lokatz artean zabiltza basoan, oinak oinetakoetatik atera egiten zaizkizu.
- Oraintxe esnatu zara.
- Eskola bukatu eta etxerantz zoaz.
- Hotzez dardarka zoaz, elurra mara-mara ari duela.
- ...